



# Udazkeneko txapelketa 2023-2024

## 3x3 Saskibaloia

Lekua: Unibertsitateko Kiroldegiko kantxa – Ctra. de Leioa a Unbe nº 6- 48950 Leioa-Erandio (Bizkaia)

### TXAPELKETAKO ARAUAK

1. Partida bat hasteko, ekipoek **gutxienez 3 jokalaria** izango dituzte eta **gehienez 4 (3 jokalaria + ordezeko 1)**. Aktan izena jasota duten jokalaria guztiek jokatu behar dute.
2. Taldeek **garaiz** iritsi behar dute instalazioetara. Denek batera sartu behar dute instalazioetara, gutxienez partida hasi baino **15´ minutu** lehenago. **Partidak hasteko ordua ezingo da 10´ minutu baino gehiago atzeratu.** Denbora tarte hori igaro ondoren, aurkeztu ez den taldeari galdutzat emango zaio partida. **Denborak aldatu daitezke talde kopuruaren arabera.**
3. **Derrigorrezkoa** da instalaziora iristean **arbitro taldeari NANA eta egiaztagiria edo unibertsitateko txartela aurkeztea, izena emateko triptikoarekin batera.** Aurkezten ez dituztenek EZINGO DUTE TXAPELKETAKO EGUNETAN JOKATU.
4. **Partiden iraupena:** Taldekako txapelketa, 2 zati, bakoitza 7 minutukoa, denbora korrituan jokatu da. Partida bakoitzean, ekipo bakoitzak hutsarte bakarra eska dezake. Taldeko txapelduna izango da partida guztietan puntu gehien lortzen dituen ekipoa. Irabazitako partida: 2 puntu. Galdutakoa: 0 puntu.  
**Berdinketa haustea:** Arauzko denbora amaituta berdinduta badaude, une horretantxe jokatzen ari diren talde bakoitzeko jokalariek egin beharko dute jaurtiketa libre bana, eta partida saskiratze gehien egiten dituen ekipoak irabaziko du. Hori eginda berdinketa hautsi ez bada, bat-bateko heriotza sistema erabiliko da, aldi bakoitzean jokalaria batek jaurtiketa eginez, eta ezin izango du berriro jokalaria berak jaurti.
5. **Jantzia:** gomendatzen da ekipo bakoitzak adostu dezala kolore bereko kamiseta eramatea.
6. **ARBITROA:** **arbitroa ez agertzea ez da aitzakia izango partida bertan behera uzteko edo atzeratzeko.** Horren ordez, ordezkariak ados jarriko dira arbitratzeko, eta emaitza baliouduna izango da sailkapenerako. Gainera, partida amaitu eta 24 orduko epean, partidara bertaratutakoen izen-abizenak, NANA eta partidaren emaitza idatzi beharko dira orri batean eta Kirol Zerbitzuari bidali (**bi-kirolak@ehu.eus** helbide elektronikora edo eskura). Orri hori berandu bidaltzen bada, arrazoirik gabe, partida galdutzat emango da bi taldeentzat.
7. Talde bat ez bada partida batera agertzen, galdutzat emango zaio partida, eta, gainera, puntuak.
8. Espainiako Saskibaloia Federazioak ezarritako araudia aplikatuko da, lehen adierazitako puntuetan izan ezik.
9. **Kredituak aitortzeko eskaera:** eskaera banan-banan egingo da, hauxe da esteka: <https://bit.ly/2D1s2Vc>. Jokaturako partida bakoitza egun bat izango da.

10. Lehiaketa Antolatzeko eta Kontrolatzeko Batzordeak eskubidea izango du norbaiti zehapena ezarri eta txapelketatik kanporatzeko, kirol instalazioetan kirolari ez dagokion jarrera eta gizalegezkoa ez den jarrera desegokia izanez gero. **ANTOLAKUNTZAK ESKUBIDEA DU TXAPELKETAN ZEHAR ARAUAK ALDATZEKO, BERTAN SORTZEN DIREN EGOERETARA EGOKITUZ. PARTE HARTZAILEEK, IZENA EMATEAN, ARAU HAUEK ONARTZEN DITUZTE ETA BEHARTUTA DAUDE ARAUOK BETETZERA.**